

GIPUZKOAKO OZEANOGRAFIA FUNDAZIOA (FOG)

Sozietatearen izena

Gipuzkoako Ozeanografia Fundazioa

IFK

G20796157

Izaera

Fundazioa.

Kontabilitate-araubidea

Pribatua.

Aurrekontu-araubidea

Gutxi gorabeherakoa.

Sorrera

Irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta 2002ko abenduaren 19an eratu zen eskritura publiko bidez. Fundazioen Erregistroan inskribatu zen, [“Gipuzkoako Ozeanografia Fundazioa” EAEko Fundazioen Erregistroan inskribatzeari buruzko Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2004ko martxoaren 29ko Agindua betez.](#)

Sail-atxikipena

Ingurumen eta Lurralde Politika Saila.

EJSN

7219 Bestelako ikerketa eta garapen esperimentalak natura- eta teknika-zientzietan.

Fundazioaren xedea eta helburua

Honako hauek dira fundazioaren xedeak:

- a) Ozeanografiaren arlo guztiak garatzen laguntzea.
- b) Itsasoari eta bertako faunari eta florari buruzko guztia ezagutaraztea, interesa piztea eta horren inguruko herri-kultura sustatzea.
- c) Aquariumeko instalazioak mantentzea eta handitzea.
- d) Ontzigintzaren eta Arrantzaren Historia ezagutzeko lanak sustatzea, hitzaldi, ikastaro eta jardunaldiak antolatuz, eta arrantzako berrikuntza teknikoaren modelismoa eta azterketa bultzatuz.
- e) Ikerketa-lanak egitea eta publikatzea, beharrezko baliabide teknikoak eskuratuz (batik bat, laborategi-zerbitzuak).
- f) Museoa mantentzea eta garatzea, berez dagozkion jarduera-eremuetan.
- g) Ozeanografia, Ontzigintzaren Historia eta Arrantzari buruzko liburutegi bat mantentzea.
- h) Itsasoko ingurumen-arazoetan arreta jartzea eta ahal dituen neurriak hartzea haren osotasunaren alde eta hondamenaren aurka.
- i) Lan zehatzetarako taldeak antolatzea aipatutako gai bakoitzean.
- j) Harremanak izatea eta albisteak trukitzea maila eta nazionalitate guztietako Ikerketa Ozeanografikorako Zentroekin.
- k) Aipatutako helburuetara bideratutako beste edozein jarduera.

Sailkapena kontabilitate nazionalen

Sozietate ez-finantzarioak.

Fundazio-zuzkidura


5.096.411 €

Fundazio-zuzkiduraren osaera

Sortzaile izandako Gipuzkoako Ozeanografia Elkartearen (SOG) hasierako ekarpena, gehi aurreko ekitaldietako soberakin positiboak.

Patronatuaren osaera

Izendatzen dituenak:	Patrono-kop./Guztira
EAEko Administrazio Orokorra	1/16
Gipuzkoako Foru Aldundia	1/16
Donostiako Udala	1/16
Azti Fundazioa	1/16
Patrono pribatuak	12/16



2012ko ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	15.826.931 €
Ondare garbia	15.114.458 €
Salmentak eta merkataritza-jarduerako beste sarrera batzuk	2.415.785 €
Batez besteko langile-kopurua	31

Sozietatearen helbidea

Itsas Jauregia, Donostiako portuko moila, Carlos Blasco de Imaz plaza z/g, 20003 Donostia (Gipuzkoa).

Webgunea

www.aquariumss.com